



**Convention relative au soutien des actions menées par
l'association Euskal Moneta pour développer la langue basque
dans les commerces**

**Euskal Moneta elkarteak saltegieta euskara garatzeko
eramaten dituen ekintzak sustengatzeko hitzarmena**

Contexte :

Le Cadre opérationnel 2011-2016 adopté par le Conseil d'administration de l'OPLB du 20 octobre 2010 acte une orientation stratégique importante : « opérer une montée en puissance de l'action de l'Office public sur les champs de l'usage de la langue » notamment dans la vie sociale, et d'investir dès 2014 le domaine des commerces et du service à la personne.

En cohérence avec cette orientation, le CA de l'OPLB du 17 décembre 2013 a adopté le principe de la mise en place d'un dispositif d'accompagnement des commerces et entreprises et mobilisé pour ce faire une enveloppe budgétaire sur l'exercice 2013.

Ce dispositif s'inscrivant dans le cadre du développement de la présence de la langue basque dans la vie sociale s'adressera à tout commerce, service à la personne, volontaire. Il aura pour objectif d'inciter et accompagner les opérateurs à développer la place et l'utilisation de la langue basque dans leurs commerces en leur offrant les outils nécessaires pour cela.

Les services de l'OPLB travaillent de manière concertée avec le réseau des techniciens-développeurs de la langue basque, à la conception de ce dispositif qui reposera sur la mise à disposition d'outils (éléments de signalétique bilingues, lexiques...) qui permettront aux acteurs volontaires d'intégrer la langue basque de manière interactive et autonome, dans le respect de leurs réalités et rythmes de travail spécifiques tout en donnant la possibilité, à la demande, d'un accompagnement plus personnalisé.

« **Euskal Moneta** » est une association régie par la loi du 1^{er} juillet 1901 et le décret du 13 août 1901. Le 31 janvier 2013 après un an et demi de préparation, elle a lancé l'« Eusko », monnaie locale complémentaire adossée à l'euro avec deux objectifs principaux :

- « remettre l'économie au service du local, du social et de l'humain dans le respect de la nature, en lieu et place d'une économie qui incite simplement à la spéculation et à la consommation » ;
- « **promouvoir l'usage de la langue basque**

Testuingurua :

2010eko urriaren 20ko EEPko Administrazio Kontseiluak onartu duen 2011-2016 Jokabide Esparruak norabide estrategiko garrantzitsua atxiki du : « EEPren esku-hartzearen indartzea euskararen erabilaren eremuetan » bereziki bizitza sozialaren eremuan, eta 2014. urtetik goiti, saltegien eta jende zerbitzuen eremua estaltzen hasten.

Norabide horri jarraikiz, EEPko 2013ko abenduaren 17ko Administrazio Kontseiluak onartu du komertzio eta enpresak laguntzeko dispositibo bat eraikitzearen printzipioa eta horretarako diru kopuru bat baztertu du 2013ko kontu alditik.

Euskararen tokia bizitza sozialean garatzearen ildotik doan dispositibo hori nahikaria izanen duten saltegi eta jende zerbitzu guzietan zuzenduko zaie. Horren helburua eragileak akuitatzea eta laguntzea izanen da, haien saltegieta euskararen tokia eta erabilpena gara dezaten, horretarako beharko dituzten tresnak eskainiz.

EEPko zerbitzuak euskara teknikari-garatzailen sarearekin elkarlanean ari dira, eragileei tresnak eskura ematean oinarritzen den dispositibo berri hori sortzeko. Tresna horiek (seinaletika elementu elebidunak, hiztegiak...) nahikaria izanen duten eragileei aukera emanen die haien saltegieta euskara sarrarazteko elkarreraginez eta modu autonomoan, beren errealitate eta lan erritmoak errespetatuz eta denbora berean parada emanez, galdea egiten baldin badute, laguntza indibidualago bat izateko.

« **Euskal Moneta** » 1901eko uztailaren 1.eko legeak eta 1901eko agorriaren 13ko dekretuak arautzen duten elkarte da. 2013ko urtarrilaren 31an, urte bat eta erdiz apailatu ondoren, « Euskoa », euroari uztartu tokiko moneta osagarria sortu zuen, bi helburu nagusirekin :

- « ekonomia tokian-tokikoaren, gizartearen eta gizakiaren zerbitzura birbideratu izadia errespetatuz, kontsumora eta espekulaziora baizik akuitatzen ez duen ekonomia baten ordez » ;
- « **euskararen erabilera sustatu bizitza**

dans la vie publique et particulièrement dans la sphère de l'économie locale ».

Elle compte plus de 2700 utilisateurs particuliers et plus de 500 entreprises, commerces et associations, ce qui en fait après un an d'existence l'une des monnaies locales les plus importantes d'Europe. Chaque entreprise et commerce du réseau doit choisir un défi pour le développement de la langue basque, avec deux options possibles :

- soit mettre en place un affichage bilingue (français/euskara) ;
- soit assurer un accueil en euskara à l'oral, ce qui veut dire, si le responsable ne parle pas basque, prendre ou faire prendre à un salarié 20 h de cours d'initiation à l'euskara.

L'association Euskal Moneta a sollicité le soutien de l'OPLB pour l'accompagnement des commerçants à la réalisation du défi affichage bilingue et ainsi renforcer la présence de la langue basque dans les commerces et entreprises.

L'OPLB a mené un diagnostic précis des actions menées par Euskal Moneta et des possibilités d'accompagnement dans le but de développer la présence et de l'utilisation de la langue basque dans les commerces.

Présentation du projet :

La convention a pour objet de définir un cadre partenarial pour accompagner les commerçants et entreprises du réseau Eusko à développer la présence de la langue basque dans leur établissement. La mise en place de ce partenariat se déroulera en trois étapes :

- Un soutien technique de l'OPLB à Euskal Moneta pour accompagner les commerçants du réseau à réaliser leur défi d'affichage bilingue pour 2014 qui se matérialisera par la traduction des données d'affichage des commerçants, dans la limite de 29.000 mots à traduire soit 3.480 € ; l'OPLB fera réaliser les traductions à des traducteurs professionnels qu'il rémunérera directement et les remettra à l'association Euskal Moneta pour qu'elle les retourne aux commerçants concernés. Ces traductions serviront par ailleurs à alimenter une base de données destinée à être mise à disposition de l'ensemble des commerçants via internet.
- Un travail concerté pour définir les modalités d'un partenariat durable, en lien avec le dispositif d'accompagnement des commerces et entreprises de l'OPLB en cours de définition, afin d'y intégrer les commerces et entreprises du réseau Eusko ;

publikoan eta bereziki tokiko ekonomia mailan ».

2700 erabiltzaile baino gehiago ditu partikularren artean eta 500 baino gehiago enpresa, saltegi eta elkarten artean, horrek Europako tokiko diru garrantzitsuenen artean sailkatzen du, sortu eta urte bat berantago. Sareko enpresa bakoitzak bi desafio hautatu behar ditu bi urtez, horietako bat euskararen garapenarendako, bi aukerekin :

- Edo afixatzea bi hizkuntzetan ezarri (frantsesa/euskara) ;
- Edo euskarazko ahozko harrera bermatu, erran nahi baita, arduradunak euskaraz ez badaki, 20 oreko euskara inimizazio klaseak hartu edota langile bati harrarazi.

Euskal Moneta elkarteak EEPri laguntza eskatu dio komertsantak laguntzeko afixatze elebidunaren desafioa betetzen, eta horrela, euskararen presentzia indartzen saltegi eta enpresetan.

EEPk Euskal Monetak eramaten dituen ekintzen diagnostiko zehatza egin du eta aztertu ditu elkarteak laguntzeko aukerak, saltegiaren euskararen presentzia eta erabilpena garatzeko xedearekin.

Proiektuaren aurkezpena :

Hitzarmen honek koadro bat mugatzea du helburu, haien saltegiaren euskararen tokia gara dezaten enpresak laguntzeko Euskal Monetak eta EEPk elkarrekin eramanez dituzten laguntza eta ekintzak zehazteko. Elkarlan horren zutik ezartzea hiru urratsez egingen da :

- EEPk Euskal Moneta teknikoki lagunduko du Eusko sareko saltegiak lagun ditzan hautatu duten 2014. urteko afixatze elebidunaren desafioa egin dezaten, hori komertsanten afixatze elementuen itzulpena eginez gauzatuko da gehienik 29.000 hitzen, hau da 3.480 €ren itzulpenak eginez ; EEPk itzulpen horiek zuzenean eginaraziko dizkie zuzenki ordainduko dituen itzultzaileei, eta Euskal Moneta elkarteari emanen dizkio, hark itzulpen galdea egin duten komertsantei eman diezazkien. Bertzalde itzulpen horiek baliatuko dira datu base bat elikatzeke, interneten ezarriko dena komertsant ororen eskura.
- Elkarren arteko lana eramanez da partaidetza iraunkor baten baldintzak zehazteko, EEP definitzen ari den saltegi eta enpresei zuzendu dispositiboarekin loturik, horren baitan Eusko sareko saltegi eta enpresak txertatu ahal izateko ;

- La formalisation de ce partenariat par la signature d'une convention pluriannuelle.
- Partaidetza hori formalizatuko da urte anitzeko hitzarmen batean.

Délibération :

L'Assemblée Générale de l'OPLB décide :

- d'approuver la convention de partenariat entre l'association Euskal Moneta et l'OPLB ;
- d'autoriser le Président de l'OPLB à signer cette convention ;
- d'engager sur le budget 2014 une enveloppe budgétaire de 3.500 € pour financer les traductions des données d'affichages des commerçants du réseau Eusko.

Adopté à l'unanimité.

Erabakia_:

EEPko Biltzar Nagusiak erabakitzen du :

- Euskal Moneta eta EEPren arteko partaidetza hitzarmena onartzea ;
- EEPko lehendakariari hitzarmen horren izenpetzeko baimena ematea
- 2013ko buxetetik 3.500 €ko diru kopurua baztertzea Eusko sareko saltegien afixaketa datuen itzulpenak eginarazteko

Aho batez onartua.

**CONVENTION RELATIVE AU SOUTIEN DES ACTIONS MENEES
PAR L'ASSOCIATION EUSKAL MONETA POUR DEVELOPPER LA
LANGUE BASQUE DANS LES COMMERCEs**

**EUSKAL MONETA ELKARTEAK SALTEGIETAN EUSKARA
GARATZEKO ERAMATEN DITUEN EKINTZAK
SUSTENGATZEKO HITZARMENA**

Entre les soussignés :

L'Office Public de la Langue Basque (ci-après désigné « l'OPLB »), représenté par son Président Monsieur **François MAÏTIA** d'une part,

Et

L'association **Euskal Moneta**, représenté par son Président **XXXXXXXXXXXXXXXXXX**.

Il est convenu et arrêté ce qui suit :

PREAMBULE

I/ L'Office Public de la Langue Basque (OPLB) est un Groupement d'Intérêt Public, créé le 26 novembre 2004, constitué par l'Etat, la Région Aquitaine, le Département des Pyrénées-Atlantiques, le Syndicat intercommunal de soutien à la culture basque et le Conseil des élus du Pays Basque pour définir et mettre en œuvre une politique linguistique en faveur du développement de l'utilisation de la langue basque.

Afin de remplir ses missions, le Conseil d'administration de l'OPLB a défini un projet de politique linguistique intitulé « **Un objectif central : des locuteurs complets – Un cœur de cible : les jeunes générations** » adopté à l'unanimité par les membres du Conseil d'administration en décembre 2006.

Pour atteindre cet objectif ambitieux, ce projet fixe 12 enjeux majeurs visant tout à la fois la transmission et l'usage de la langue basque. Au terme de presque 8 ans de mise en œuvre, la politique publique conduite par l'OPLB porte ses premiers fruits. En particulier, dans le cadre d'un partenariat permanent avec l'Education nationale, 44 nouveaux sites d'enseignement bilingue basque/français ont vu le jour en 9 ans dans les 3 filières, publique, catholique et ikastola, et 45% des élèves de maternelle suivent désormais un enseignement dans les 2 langues.

Le projet de politique linguistique identifie la place de la langue basque dans la vie sociale comme l'un des 12 enjeux majeurs pour atteindre son « objectif central : des locuteurs complets ». Il s'agit de « **promouvoir l'usage social du basque, pour que la langue**

Honako hauek izenpeturik :

Alde batetik, **Euskararen Erakunde Publikoa** (beherago "EEP" deitua), **François MAÏTIA**, lehendakari jaunak ordezkatuak,

Eta

beste aldetik, **Euskal Moneta Elkarte** **XXXXXXXXXXXXXXXXXX** lehendakariak ordezkatuak.

Bi alderdiek honako hau onartu dute

SAR HITZA

I/ Euskararen Erakunde Publikoa (EEP) 2004. urteko azaroaren 26an sortu Interes Publikoko Elkargoa da. Frantziako Estatuak, Akitaniako Eskualdeak, Pirinio-Atlantikoetako Departamenduak, Euskal kultura sustengatzen duen herrien arteko sindikatuak eta Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluak osatzen dute. Euskararen erabileraren garapenaren aldeko hizkuntza politika publikoa definitzea eta obratzea ditu xede.

Bere eginkizun horiek konplitzeko, EEPko administrazio Kontseiluak hizkuntza politika proiektua definitu du « **Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun** » izendatu duena, eta 2006ko abenduako Administrazio Kontseiluko kide guzietan aho batez onartu dutena.

Anbizio handiko helburu hori erdiesteko, proiektu horrek transmisioa eta erabilera xedetzat hartzen dituzten 12 erronka nagusi finkatuak ditu. Kasik 7 urtez obratu ondoren, EEPk zuzendu politika publikoak lehen fruituak ekarri ditu. Partikulariki Hezkuntza Ministerioarekiko etengabeko partaidetzaren baitan. Izan ere, iragan 9 urtetan, 44 ikastetxe irakaskuntza elebiduna eskaintzen hasi dira, diren hiru sailetan, publikoan, girstinoan eta ikastoletan, eta jagoitik, ama eskolan diren ikasleentz %45ak bi hizkuntzetan ikasten du.

Bere helburua erdiesteko, hau da « **hiztun osoak** » lortzeko, Hizkuntza politika proiektuak 12 erronka nagusien artean ezarria du Euskararen tokia bizitza sozialean. Hona erronka hori zertaz doan : « **gizartea euskaldundu, euskal hiztunek hizkuntza bizitza**

apprise soit aussi une langue pratiquée, vue et entendue dans les lieux de vie », pour donner aux locuteurs bascophones la possibilité de pratiquer la langue basque dans tous les pans de la vie sociale.

Le Cadre opérationnel 2011-2016 adopté par le Conseil d'administration de l'OPLB du 20 octobre 2010 acte une orientation stratégique importante : « opérer une montée en puissance de l'action de l'Office public sur les champs de l'usage de la langue » notamment dans la vie sociale, et d'investir dès 2014 le domaine des commerces et du service à la personne.

En cohérence avec cette orientation, le CA de l'OPLB du 17 décembre 2013 a adopté le principe de la mise en place d'un dispositif d'accompagnement des commerces et entreprises et mobilisé pour ce faire une enveloppe budgétaire sur l'exercice 2013.

Ce dispositif s'inscrivant dans le cadre du développement de la présence de la langue basque dans la vie sociale s'adressera à tout commerce, service à la personne, volontaire.

Il aura pour objectif d'inciter et accompagner les opérateurs à développer la place et l'utilisation de la langue basque dans leurs commerces en leur offrant les outils nécessaires pour cela.

Les services de l'OPLB travaillent de manière concertée avec le réseau des techniciens-développeurs de la langue basque, à la conception de ce dispositif qui reposera sur la mise à disposition d'outils (éléments de signalétique bilingues, lexiques...) qui permettront aux acteurs volontaires d'intégrer la langue basque de manière interactive et autonome, dans le respect de leurs réalités et rythmes de travail spécifiques tout en donnant la possibilité, à la demande, d'un accompagnement plus personnalisé.

II/ « Euskal Moneta » est une association régie par la loi du 1^{er} juillet 1901 et le décret du 13 août 1901, ayant pour titre « Euskal Moneta – Monnaie locale du Pays Basque » et dont le siège social se trouve à Bayonne. Le 31 janvier 2013 après un an et demi de préparation, elle a lancé l'« Eusko », monnaie locale complémentaire adossée à l'euro avec deux objectifs principaux :

- « remettre l'économie au service du local, du social et de l'humain dans le respect de la nature, en lieu et place d'une économie qui incite simplement à la spéculation et à la

sozialean baliatzeko, entzuteko eta ikusteko aukera ukan dezaten », gisa horretan euskal hiztunek izanen baitute euskara erabiltzeko parada bizitza sozialak dituen eremu guzietan.

2010eko urriaren 20ko EEPko Administrazio Kontseiluak onartu duen 2011-2016 Jokabide Esparruak norabide estrategiko garrantzitsua atxiki du : « EEPren esku-hartzearen indartzea euskararen erabileraren eremuetan » bereziki bizitza sozialaren eremuan, eta 2014. urtetik goiti, saltegien eta jende zerbitzuen eremua estaltzen hastea.

Norabide horri jarraikiz, EEPko 2013ko abenduaren 17ko Administrazio Kontseiluak onartu du komertzio eta enpresak laguntzeko dispositibo bat eraikitzearen printzipioa eta horretarako diru kopuru bat baztertu du 2013ko kontu alditik.

Euskararen tokia bizitza sozialean garatzearen ildotik doan dispositibo hori nahikaria izanen duten saltegi eta jende zerbitzu guzietan zuzenduko zaie.

Horren helburua eragileak laguntzea izanen da, haien saltegietan euskararen tokia eta erabilpena gara dezaten, horretarako beharko dituzten tresnak eskainiz.

EEPko zerbitzuak euskara teknikari-garatzailen sarearekin elkarlanean ari dira, eragileei tresnak eskura ematean oinarritzen den dispositibo berri hori sortzeko. Tresna horiek (seinaletika elementu elebidunak, hiztegiak...) nahikaria izanen duten eragileei aukera emanen die haien saltegietan euskara sarrarazteko elkarreraginez eta modu autonomoan, beren errealitate eta lan erritmoak errespetatuz eta denbora berean parada emanez, galdea egiten baldin badute, laguntza indibidualago bat izateko.

II/ « Euskal Moneta » 1901eko uztailaren 1.eko legeak eta 1901eko agorrilaren 13ko dekretuak arautzen duten elkartea da, « Euskal Moneta – Monnaie locale du Pays Basque » izenburua duena, eta egoitza soziala Baionan duena. 2013ko urtarrilaren 31an, urte bat eta erdiz apailatu ondoren, « Euskoa », euroari uztartu tokiko moneta osagarria sortu zuen, bi helburu nagusirekin :

- « ekonomia tokian-tokikoaren, gizartearen eta gizakiaren zerbitzura birbideratu izadia errespetatuz, kontsumora eta espekulaziora baizik akuilatzen ez duen ekonomia baten

consommation » ;

- « **promouvoir l'usage de la langue basque dans la vie publique et particulièrement dans la sphère de l'économie locale** ».

Elle compte plus de 2700 utilisateurs particuliers et plus de 500 entreprises, commerces et associations, ce qui en fait après un an d'existence l'une des monnaies locales les plus importantes d'Europe.

Les adhérents de l'association changent des euros en eusko au taux de un pour un, et les dépensent ensuite dans les commerces, entreprises et associations du réseau, qui peuvent alors soit les réutiliser, soit les reconverter en euros avec une commission de 5%.

Chaque entreprise et commerce du réseau doit relever deux défis en deux ans, dont l'un pour le développement de la langue basque, avec deux options possibles :

- soit mettre en place un affichage bilingue (français/euskara) ;
- soit assurer un accueil en euskara à l'oral, ce qui veut dire, si le responsable ne parle pas basque, prendre ou faire prendre à un salarié 20 h de cours d'initiation à l'euskara.

En tout 253 commerces et entreprises se sont engagés à mettre en place un affichage bilingue avant la fin 2014 ; 34 commerces et entreprises se sont engagés à prendre 20 heures de cours d'initiation à la langue basque dans le cadre d'un partenariat bilatéral entre Euskal Moneta et l'organisme de formation AEK.

A ce jour, l'accompagnement des commerçants à la réalisation du défi d'affichage bilingue et les traductions afférentes se font grâce à l'aide des bénévoles de l'association. Cependant, cette solution n'est pas suffisante et Euskal Moneta rencontre de grandes difficultés pour accompagner les commerces à rendre leur affichage bilingue, le plus difficile étant pour l'association de traduire les données fournies par les commerçants.

III/ Certaines actions de l'association ont bénéficié d'un accompagnement de l'OPLB dans le cadre de la mise en place du défi d'affichage bilingue destiné aux commerces. Ainsi, l'OPLB a :

- accompagné Euskal Moneta à définir une grille de diagnostic du paysage linguistique

ordez » ;

- « **euskararen erabilera sustatu bizitza publikoan eta bereziki tokiko ekonomia mailan** ».

2700 erabiltzaile baino gehiago ditu partikularren artean eta 500 baino gehiago enpresa, saltegi eta elkarteen artean, horrek Europako tokiko diru garrantzitsuenen artean sailkatzen du, sortu eta urte bat berantago.

Elkarteko kideek euroak euskoen kontra trukatzeko dituzte, trukaneurria batetik bateko izaki, eta ondotik sareko saltegi, enpresa eta elkarteetan xahutzen dituzte. Azken hauek berriz erabil ditzakete edo eurotan alda ditzakete %5eko komisioarekin.

Sareko enpresa bakoitzak bi desafio hautatu behar ditu bi urtez, horietako bat euskararen garapenarendako, bi aukerekin :

- Edo afixatzea bi hizkuntzetan ezarri (frantsesa/euskara) ;
- Edo euskarazko ahozko harrera bermatu, erran nahi baita, arduradunak euskaraz ez badaki, 20 oreneko euskara iniziazio klaseak hartu edota langile bati harrarazi.

Orotara 253 saltegi eta enpresa engaiatu dira, 2014 urtea bukatu aitzin, afixatze elebidun bat ezartzen ; 34 saltegi eta enpresa, berriz, engaiatu dira 20 oreneko euskara iniziazio klaseak hartzen, Euskal Monetak elkarteak eta AEKk bien artean duten partaidetzaren kariatara.

Afixatze elebidunaren desafioa hautatu duten saltegien laguntza eta horri lotu itzulpenak elkarteko boluntarioek bermatzen dituzte gaur egun. Bizkitartean, aterabide hori ez da nahikoa eta Euskal Monetak arazo handiak ditu saltegiak laguntzeko haien afixatzea elebidunki egin dezaten, elkartearendako, zailena saltegiek bidali itzulpen galdeen itzulpenak bermatzea izaki.

III/ Saltegiei zuzendu afixatze elebidunaren desafioa zutik ematerakoan elkarteak egin dituen ekintza zenbait EEPk lagundu ditu. Hala nola, EEPk bere laguntza ekarri du :

- Euskal Moneta lagunduz saltegien hizkuntza paisaiaren diagnostiko taula

- des commerces ;
- élaboré et animé une session de sensibilisation aux outils numériques de traduction français / basque pour les traducteurs bénévoles de l'association ;
 - assuré la validation linguistique des traductions réalisées.

L'association Euskal Moneta a sollicité le soutien de l'OPLB pour l'accompagnement des commerçants à la réalisation du défi affichage bilingue et ainsi renforcer la présence de la langue basque dans les commerces et entreprises, et donc dans le paysage linguistique du Pays Basque de France.

L'OPLB a mené un diagnostic précis des actions menées par Euskal Moneta et des possibilités d'accompagnement possibles dans le but de développer la présence et de l'utilisation de la langue basque dans les commerces.

Compte tenu de ces éléments, il est convenu et arrêté ce qui suit :

Article 1 : Objet de la convention

La présente convention a pour objet de définir le cadre dans lequel interviendront en partenariat l'OPLB et l'association Euskal Moneta pour accompagner les commerçants et entreprises du réseau Eusko à développer la présence de la langue basque dans leur établissement. La mise en place de ce partenariat se déroulera en trois étapes :

- Un soutien technique de l'OPLB à Euskal Moneta pour accompagner les commerçants du réseau à réaliser leur défi d'affichage bilingue pour 2014 ;
- Un travail concerté pour définir les modalités d'un partenariat durable, en lien avec le dispositif d'accompagnement des commerces et entreprises de l'OPLB en cours de définition, afin d'y intégrer les commerces et entreprises du réseau Eusko ;
- La formalisation de ce partenariat par la signature d'une convention pluriannuelle.

- bat osatzen ;
- elkarteko itzultzaile boluntarioendako frantsesa / euskara itzulpenerako tresna numerikoei sentsibilizatzeko formakuntza apailatu eta animatuz ;
 - egin itzulpenen hizkuntza baieztapena bermatuz.

Euskal Moneta elkarteak EEPri laguntza eskatu dio komertsantak laguntzeko afixatze elebidunaren desafioa betetzen, eta horrela, euskararen presentzia indartzen saltegi eta enpresetan, eta beraz, Ipar Euskal Herriko hizkuntza paisaian.

EEPk Euskal Monetak eramaten dituen ekintzen diagnostiko zehatza egin du eta aztertu ditu elkarteak laguntzeko aukerak, saltegiaren euskararen presentzia eta erabilpena garatzeko xedearekin.

Elementu horiek kontutan harturik, honako hau erabaki da :

1 . artikulua : hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honek koadro bat mugatzea du helburu, haien saltegiaren euskararen tokia gara dezaten enpresak laguntzeko Euskal Monetak eta EEPk elkarrekin eramanen dituzten laguntza eta ekintzak zehazteko. Elkarlan horren zutik ezartzea hiru urratsez eginen da :

- EEPk Euskal Moneta teknikoki lagunduko du Eusko sareko saltegiak lagun ditzan hautatu duten 2014. urteko afixatze elebidunaren desafioa egin dezaten ;
- Elkarren arteko lana eramanen da partaidetza iraunkor baten baldintzak zehazteko, EEP definitzen ari den saltegi eta enpresei zuzendu dispositiboarekin loturik, horren baitan Eusko sareko saltegi eta enpresak txertatu ahal izateko ;
- Partaidetza hori formalizatuko da urte anitzeko hitzarmen batean.

Article 2 : Engagements souscrits par l'association Euskal Moneta

L'association Euskal Moneta s'engage à mener les actions décrites ci-dessous pour l'année 2014 :

1/ Assurer la liaison entre l'OPLB et les commerçants du réseau Eusko ayant choisi de rendre bilingue leur affichage :

- en relevant les données à traduire auprès des commerçants engagés dans la démarche
- en remettant à l'OPLB ces données sous format Excel
- en restituant aux commerçants les données traduites, et ou validées, par l'OPLB

2/ Prendre part à la réflexion et au travail de construction d'un nouveau partenariat durable avec l'OPLB visant à accompagner les commerçants du réseau Eusko à développer l'usage et la présence de la langue basque dans leurs commerces :

- participer aux réunions de travail avec l'OPLB
- fournir à l'OPLB les données et informations nécessaires à la définition et à la mise en place du nouveau partenariat
- participer au comité consultatif thématique de la vie sociale que l'OPLB organisera spécifiquement en vue de la mise en place de son nouveau dispositif
- inviter l'OPLB aux comités de pilotage langue basque d'Euskal Moneta

3/ Formaliser le partenariat avec l'OPLB pour développer la présence et l'usage de la langue basque dans les commerces du réseau Eusko

Article 3 : Engagements pris par l'Office Public de la Langue Basque

L'OPLB s'engage à accompagner Euskal Moneta à la mise en œuvre des engagements écrits à l'article 2 :

- en assurant la traduction et la validation linguistique des données relevées par l'association auprès de son réseau de commerçants et transmises à l'OPLB sous format Excel ; l'OPLB s'engage à assurer la traduction des éléments d'affichage de ces commerces (signalétique, étiquettes, horaires,

2. artikulua : Euskal Monetak hartu engaiamenduak

Euskal Moneta elkarteak azpiko ekintza hauek eramaten engaiatzen da 2014. urterako :

1/ EEP eta haien afixatzea elebiduntzera engaiatu diren Eusko sareko saltegien arteko lotura segurtatu :

- engaiatu diren saltegiek euskarara itzuli beharreko datuak bilduz
- datu horiek Excel formatupean EEPri helaraziz
- EEPk itzularazi edo eta baieztarazi itzulpenak saltegiei itzuliz

2/ Eusko sareko saltegiak euskararen presentzia eta erabilpena gara dezaten laguntzeko, EEPekin partaidetza iraunkor berri bat eraikitzeko gogoeta eta lan bilkuretan parte hartu :

- EEPekin lan bilkuretan parte hartuz
- EEPri partaidetza berria eraikitzeko beharko dituen datu eta informazioak emanez
- EEPk dispositibo berriaren zutik emateari buruz antolatuko duen aholku batzorde tematikoan parte hartuz
- EEP gomitatuz Euskal Monetaren euskarari buruzko gidaritza batzordera

3/ Eusko sareko saltegieta euskararen presentzia eta erabilpena garatzeko EEPekin partaidetza formalizatu

3. artikulua : Euskararen Erakunde Publikoak hartu engaiamenduak

EEPk Euskal Moneta elkarte lagunduko du 2. artikuluan idatziak diren engaiamenduak obratzen :

- segurtatuz elkarteak bere sareko saltegieta bildu datuen itzulpen eta hizkuntza baieztapena ; itzulpen horiek EEPri Excel formatupean helaraziko zaizkio ; EEP engaiatzen saltegien afixatze datuak itzultzen (seinaletika, etiketak, ordutegiak, jatetxeetako kartak, menuak, etab.) 29.000 hitzen muga

cartes de restaurants, menus, etc.) dans la limite de 29.000 mots à traduire soit 3.480 € ; l'OPLB fera réaliser les traductions à des traducteurs professionnels qu'il rémunérera directement ; l'OPLB les remettra à l'association Euskal Moneta pour qu'elle les retourne aux commerçants concernés. Ces traductions serviront par ailleurs à alimenter une base de données destinée à être mise à disposition de l'ensemble des commerçants via internet ; elles seront restituées à Euskal Moneta dans la limite de deux mois maximum après leur réception ; l'OPLB se réserve le droit de refuser des traductions si elles ne sont pas conformes à l'esprit de la convention

- en participant aux réunions de travail avec Euskal Moneta en vue de la mise en place d'un nouveau partenariat durable visant à développer la langue basque au sein des commerces du réseau de l'association ; ce partenariat s'inscrira dans un dispositif plus large, destiné aux commerçants que l'OPLB mettra en œuvre avec le réseau des techniciens-développeurs de la langue basque, dans le cadre des partenariats OPLB/Collectivités
- en invitant Euskal Moneta aux comités consultatifs de la vie sociale et particulièrement aux comités thématiques qui seront consacrés au nouveau dispositif à destination des commerces et services à la personne

Article 4 : Suivi du dispositif

Le Comité de suivi, composé d'un responsable et d'un salarié de l'association Euskal Moneta, et d'un interlocuteur des services de l'OPLB, se réunira périodiquement et au moins deux fois avant échéance de la convention pour évaluer l'état d'avancement des mesures engagées.

Article 5 : Modification et résiliation

Tout réajustement et toute modification des clauses de la présente convention devront faire l'objet d'un avenant.

gainditu gabe, hau da 3.480 €ren muga ; EEPk itzulpen horiek zuzenean eginaraziko dizkie zuzenki ordainduko dituen itzultzaileei, eta Euskal Moneta elkarteari emanen dizkio, hark itzulpen galdea egin duten komertsantei eman diezazkien. Bertzalde itzulpen horiek baliatuko dira datu base bat elikatzeko, interneten ezarriko dena komertsant ororen eskura. Itzulpen horiek Euskal Moneta elkarteari itzuliko zaizkio datu horiek eskuratu eta 2 hilabeteko epea gabe ; horietako batzuk ez badatoz bat hitzarmen honen izpirituarekin, EEPk itzulpen horiek ez egiteko eskubidea atxikitzen du

- Eusko sareko saltegiak euskararen presentzia eta erabilpena gara dezaten laguntzeko, Euskal Monetarekin partaidetza iraunkor berri bat eraikitzeko gogoeta eta lan bilkuretan parte hartuz ; partaidetza hori dispositibo zabalago batean kokatua izanen da, EEPk elkargoekin dituen hitzarmenen kariatara, euskara teknikari-garaztaile sarearekin lantzen ari duen komertsantei zuzendu dispositiboaren koadroan hain zuzen
- Euskal Moneta elkartea gomitatuz Bizitza sozialaren aholku batzorde tematikora eta bereziki saltegi eta jende-zerbitzuendako dispositibo berriari buruz antolatuko den aholku batzorde berezira

4. artikulua : Jarraipen jardunbidea

Jarraipen batzordea osatuko da, Euskal Monetako arduradun eta langile batekin, eta EEPko zerbitzueta solaskide batekin. Tarteka eta hitzarmena iraungi aitzin gutxienez bi aldiz bildu beharko da, abiatu neurrien aitzinamendua neurtzeko.

5. artikulua : Aldaketa eta deuseztatzea

Hitzarmen honetako klausulei edozein moldaketa eta aldaketa ekartzeko emendakin bat beharrezkoa izanen da.

Tout manquement aux clauses énoncées pourra entraîner, à tout moment, la résiliation de plein droit de la présente convention.

La présente convention sera résiliée de plein droit, sans préavis, ni indemnité, en cas de faillite, de liquidation judiciaire ou d'insolvabilité notoire de la structure.

Article 6 : Durée de validité - dénonciation

La présente convention est conclue pour une durée d'un an.

Elle peut être dénoncée par l'une ou l'autre des parties par lettre recommandée avec accusé de réception, avec un préavis d'un mois.

Article 7 : Règlement des litiges

En cas de litige pour l'application de la présente convention, les signataires décident de s'en remettre à la compétence exclusive du Tribunal Administratif de PAU.

Fait à Bayonne, le en deux exemplaires,

Le Président d'Euskal Moneta
Euskal Monetako Lehendakaria

Xxxxx XXXXXX

Aipatu klausulen ez errespetatzeak, hitzarmen honen eskubide osozko deuseztatzea izan dezake ondorio, noiznahi izanik ere. Diruztatze hori, hitzarmeneko helburuak ez diren beste helburu batzuentzat erabiltzeak, honen ordainketa edo deuseztatzea eraginen du.

Hitzarmen hau deuseztatua izanen da egitura desagertzen balitz edo bere beharrei erantzuteko ahalmenik ez balu.

6. artikulua : Iraupena eta salaketa

Hitzarmen honen iraupena urte batekoa da.

Alderdi batek zein besteak sala dezake gutun egiaztatu baten bidez, hilabete bateko epearekin.

7. artikulua : Auzien konponketa

Hitzarmen honen aplikazioak sor litzakeen auzien konpontzeko ardura Paueko Auzitegi Administratiboaren esku uztea erabakitzen dute hitzarmen honen izenpetzaileek.

Baionan, 2014ko XXXXarenn egina, bi aletan,

Le Président de l'Office Public de la Langue Basque
Euskararen Erakunde Publikoko Lehendakaria

François MAÏTIA